

---

## **PEDRO ATUTXA IZA**

---

Don Pedro Atutxa Iza Zeanuri izeneko errian dagoan Undurraga auzoan jaio zan 1901eko martiaren 9an.

Fede sendoa ebala eliz eziketaz arituz Filosofia eta Teologia goi-mailako ikasketak burutu ebazan Gasteizeko Seminarioan eta geroxeago Burgoseko Unibertsitatean.

23 urte ebazala adin-baimenagaz abade egin zan. Orduetik aurrera, bialdu eben errietan gogoz eta leia andiz jardun eban. Besteak beste aipatzekoak dira: Aletxa, Cicujano, Pobes, Ea eta Orozko.

Gerra ostean jeltzaile izatearren Laspuñara erbesteratu eben, eta bertan lau urte igaro ebazan.

Ainbat gorabeera jasan ondoren Ipiñara (Zeanuri) bialdu eben asiera batean eta azkenez Undurragara eta an ekiten dautso bere eliz bideari.

D. Pedrok, bere bizitzan zintzotasun osoz egindako lanagatik esaera zaar bat dakarsku gogora: "Lan baratza, lan aratza".

Abade legez, Don Pedro Ebangelioko zuaitz biurtea lortzen dauan aziaren irudiagaz alkartu geinke, txikia eta ezereza izatetik egazti guztien babesa eta estalpea izatera eldu zan.

Bere moduko beste ameslari batzuen laguntzaz sortutako Zulaibarreko Eskola gorantz doa etengabe eta gaur egun eskualde barri eta obeago baten itxaropen diran eundaka gazte batzen ditu.

Ainbat gazteren etorkizuna argitzeko egin dan argi disdiratsua dogu, guztien elburuak lortzera lagunduz eta ordurarte eurentzat ezezagun ziran bide barriak zabalduz.

Gizon legez ordea, zabalkunde gogo eta marketing teknika barik agertzen jaku, langile amorratua bera (askotan ez ulertua) eta beti be Arratiako gazteriari zidor barriak eskeiniz ezelango nekadura tantarik isuri barik.

Etorkizuna ikusteko eban moduagaitik, gure aranen industrializazioa posible eitekeela sinistu eban leen europarra dala esan geinke, Euskadi Europako erri ezberdinekaz bardintzeko teknikari prestuak sortuz.

Eta gaur, bertako sortzaile, zuzendari, irakasle, Erakunde, Foru Aldundi, Eusko Jaurlaritza eta enparauen laguntzari esker 36 urtetan lan sendo eta ugari-tsuan jardun ondoren, abade aipagarri oneri omenaldi txukun bat eskeini gura dautsogu, ain bitarteko gitxi-gaz eta ain garai arazotsu eta gaitzetan Arratia osoak eskertuko dautson erri-lan garrantzitsua aurrera eroan ebalako.

ESKERRIK ASKO DON PEDRO

### **EGITARAU-PROGRAMA**

11,00 etan:

MEZA NAGUSIA San Antoneko Orfeoiagaz Zeanuriko Andra Mari parrokian.

13,00 etan:

OMENALDI EKITALDIA Zulaibarreko Udal Pilotalekuan:

(Aurkezpena Ohorezko aureskua - Bertsolariak - Dantzak)

14,15 etan:

Gorazarrezko plaka agirian ipiniko da.

14,30 etan:

Anaiarteko bazkaria (gonbidapena derrigorrezkoa da) Eskolako jantokian.



ZULAIB AR